

1660. URTEKO ERREGE EZKONTZAREKIN LOTURIKO TOKIEN GIDA. BIGARREN INGURUA

1660ko ekainaren 3an,
Hondarribian, eta 9an,
Donibane Lohitzunen,
izandako ezkontze-ospakizun
bikoitzek 1659ko azaroaren
7an Mazarino Kardinalaren
eta Luis Méndez de Haro
jaunaren artean adostutako
Bake Ituna berretsi zuten.



Bakea sinatu ondorengo zazpi urteetan izandako gertakizunak Bakea sinatu zenean espero zenaren oso bestelakoak izan ziren. Frantziako Luis XIV.aren gailentasun militarreko politikaren helburu nagusiak bi ziren: batetik Frantziar Erreinuak XVI. mendetik Itunaren sinadura arte bizi izan zuen Austriarren dinastiaren jazarpenetik aldentzea eta, bestetik, Europako gainontzeko herrialdeen eta hauen kolonien aurrean indar izugarri eta boteretsu bihurtzea. Jarrera honek 1660an Faisaien uhartean (eta inguruetan) agerturiko borondate ona irudipena baino ez izatea ekarri zuen.

GERTAKARIETAKO PROTAGONISTAK



Luis XIV.a (1638-1715). Eguzki errege ezizenez ezagutzen da. Honek, bizi izan zuen erregetza luzean zehar, Frantzia Europako indar militar nagusi bihurtzeari ekin zion, nahiz eta hasera batean, koroa jaso eta artean adin txikiko zela, noblezia handinahi eta asaldatzaileak behar zuen oinarria kendu zion tronuari. 1659ko Ituna eta, ondorioz, lehengusinarekin ospatu zuen adostutako ezkontza bide aldakor baten hasera izan ziren, bai bere erregetzan zehar, baita ondorenean ere.

Felipe IV.a (1605-1665). Planeta errege ere deitzen zaio. Luis XIV.aren odoleko osaba zen, baina gudu-zelaian honen etsai nagusia ere bai. Pirinioetako Bakearen bitartez lortu nahi izan zuen helburu nagusia bere ilobaren asmo espansionista geratzea zen, geratzen zitzaizkion urteetan egin bezalaxe. Bere heriotzatik (1667tik) bi urtera, Luis XIV.ak espainiar monarkiari guda irekia deklaratu zion, erregea adinez txiki izateaz baliatuz. Horretarako bere lehengusina Maria Teresarekin ospatutako ezkontzaren hitzarmenak posible egiten zuen lege amarru bat erabili zuen aitzakia gisa: oraindik ezkonsaria jaso ez zuela eta, Flandriako espainiar jabetzak ordainetan jaso nahi izan zituen.




Austriako Ana (1601-1666). Frantziako erregina alarguna. 1615ean, 45 urte geroago ospatu zenaren antzeko zeremonia batean entregatua izan zen, helburu berdintsuekin (frantziar eta espainiar koroen arteko bakea berrestea). Urte askoan ikusi gabeko anaiarekin elkarrizketa hotz bat izan zuen, izan ere, Luis XIII.aren alargun zen aldetik, Luis XIV.aren adin-nagusitasuna heldu arte, erregeorde funtzioak betetzen baitzituen. Ilobari eman zion harrerak nolabaiteko berotasuna islatzen du, Anak berak 1615ean bizitako etorkizun bera zuen printzesa zenez, ziurrenik hartaz erruki baitzen.



Austriako Maria Teresa (1638-1683). Nahiz eta aitak asko maitatu, 1660ko ekainean Faisaien Uhartean ospatutako emate ekitaldian azaldu zuen bezala, ez zuen zegokion patu desatsegina saihesterik izan. 1635etik bizi zuten gerra egoerari eutsi ezin zioten bi monarkien arteko bake ituna berresteko helburuarekin berme politiko bezala sakrifikatu zuen aitak eta hortik aurrera patxadaz bete zuen eman zioten eginkizuna, bere jatorriaren kontrako giroa agertzen zuen gorte bateko erreginarena, alegia. Senarrak behin eta berriz eta era guztiz agerian desleialtasunez jokatu zuen eta Maria Teresak estoikoki bigarren maila isil eta iluna mantendu zuen, une hartan beregandik espero zen bezala.


Julio Mazarino Kardinala (1602-1661). Ospakizun hauetan ez zuen 1659ko abuztuaren eta irailaren artean hasi eta gauzatu ziren negoziaketetako paper garrantzitsua izan, Luis XIV.aren presentziak itzal egin zion eta. Hala ere, 1659ko Itunari amaiera emateko ospatu zen ekitaldi honetan izan zuen papera aintzakotzat hartu behar dugu: bai ikuspegi sinbolikotik (erregeren eta erreinuaren babesa irudikatuz, honen aitabitxi eta lehen ministro zen heinean), bai praktikotasunaren aldetik, zeren eta, gai gehienak aurreko urtean eztabaidatu eta onartu zituzten arren, printzesa ematearen aurretik eta ondoren, Harorekin mantendutako elkarriketek lotu gabeko zenbait kontu ixteko balio izan zuten. Beste gai batzuk, Bidasoaren eta Faisaien irlaren zatiketarena, adibidez, kardinalaren heriotzaren ondoren ere (hurrengo urtean gertatu zen hau), konpondu gabe geratu ziren, denbora luzez.



Luis Méndez de Haro (1598-1661).

Ezkontza-ekitaldian izan zuen papera guztiz garrantzizkoa da. Luis XIV.aren ordezkari izan zen Hondarribiko Andre Mariaren elizan 1660ko ekainaren 3an ospaturiko ahalorde bidezko ezkontzan. Beraz, Luis XIV.aren nortasuna izan zuen, une batez izan bazen ere. Ondorenean, berriz ere enbaxadore ahalguztidun bezala jardun zuen ospatzear zeuden ezkontza-ekitaldietan, bigarren maila batean. Honela bere aspaldiko etsai Mazarino kardinalarekin bildu behar izan zuen beste zenbaitetan, negoziaketa mahaian mantendu zituzten elkarriketetan, nahiz eta gai batzuk heuren heriotza gertatu ondoren ere ebatzi gabe gelditu ziren.

Henri de La Tour d'Auvergne, Turenako bizkondea, Frantziako mariskala (1611-1675). Frantziako gortearen jarraigoa osatzen zuten aitonen semeen artean bat hautatzekotan Turena mariskala azpimarra dezakegu. Koroaren zerbitzura zegoen jeneralik garrantzitsuenetakoa izan zen eta, Oliver Cromwell eta Mazarinoren arteko itunaren ondorenean, zenbait garaipen militar nagusiren eragileetako bat ere bazen, Espainiako Koroa gatazkari amaiera baketsua eman behar zitzaiola erabakitzerantz bideratu zutenenak hain zuzen ere. Bidasoara etorri izanak, Infantaren eta Frantziako erregearen arteko ezkontzarekin berretsi zen ituna bakea baino gehiago su-etena zela adierazten du. Azkenik, ondorenean ere Luis XIV.aren zerbitzura politika gerrazalea sutsuen praktikan jarri zuen militar nagusienetakoa izan zen, 1675ean Holandako Gerran hil zen arte.



Charles de Batz Castelmore, D'Artagnango jauna (1611/1615 [?]-1673). Maria Teresa eta Luis XIV erregearen arteko ezkontzan izan ziren eta ondorenean Alejandro Dumas (aita) idazleak mitiko bilakaturiko pertsonaiaetatik azpimarratu beharreko bat, Austriako Ana erreginaz gain, Charles de Batz Castelmore mosketarien ofiziala da. Faisaien Uhartea eta Frantziar koroari zegokion ibarra lotzen zituen zubia igaro ondoren, Maria Teresa, dagoeneko erregina bihurtua, eskoltatzeaz arduratu zen.



Turena mariskalaren kasuan bezala, Itunaren inguruko ekitaldietan parte hartu izanak argi adierazten digu bakeak izan zezakeen biziraupen motza. Hark bezala, D'Artagnaneko jaunak gartsu parte hartu zuen Luis XIVak 1667tik aurrera hotz-hotzean eraikitako politika oldarkorraren eta hedapen militarren zerbitzuan eta amaiera bertsua izan zuen, Holandako Gerran hil baitzen, Maastrichteko lubakietan, mariskal izateko zorian zela.

DONOSTIA



San Telmo komentuarien aldameneko atea (Santa Korda kalea).

Donostiak 1660ko gertakizunetan izan zuen papera 1659ko Itunean izandakoa baino garrantzitsuagoa izan zen. Probintziako hiriburu izatera iritsi zen udalerrri hau Felipe IV.a eta alabaren jarraigoaren bizileku bilakatu zen Luis Méndez de Haro jaunak Hondarribira joan zitezen dei egin artean, bakea berretsi zuten azken erritoetan parte hartzeko, batez ere Luis XIV.arekin ospatutako ahalorde bidezko ezkontzan.

Beraz, maiatzaren 11tik ekainaren 2ra (Hondarribira abiatu ziren eguna), Donostia, inguruetan gertatu ziren ekitaldi garrantzitsuetan parte hartzeko hurbildutako pertsonaia ospetsuen bilgune bihurtu zen.

TOLOSA



Atodo jauregiaren fatxada eta armarria (Kale Nagusia)

Tolosa Felipe IV.aren jarraigoaren oinarritzko geldialdia izan zen Luis XIV.aren eta Maria Teresa infantaren arteko ezkontzarako bidean. Hondarribira bidean erregea bertan gelditu zen, maiatzaren 8a eta 10a bitartean. Lehen bizilekua Atodo jauregian izan zuten, kale nagusitik Arrameleko San Juanera bidean, hau da, hiribildutik Donostiara zuzentzen zen bidearen hasieran. Hala ere, Felipe IV.ak nahiago izan zuen ostatzuz aldatu, Idiakez jauregia bere buruaren eta alabaren erosotasunerako aproposagoa zela erabaki baitzuen (bide berean, baina Gaztelara begira). Han hartu zuen Felipe IV.ak alabaren ezkontzaren antolaketaz Iruñako gotzaina arduratzeko erabakia.

Erregeak zenbait omenaldi jaso zituen, bai bertako soldaduek eginak, bai dantza herrikoi eta ohoragarriak, eta Eugiko arma fabrikara bisita ere egin zuen. Madrilerako itzuleran, Infantaren ematearen ondoren, bertan pasa zuen gaua, Atodo familiaren jauregian.

PASAIA



Pasaiko portuko bokalea.
Eskuinean,
Pasai-Donibaneko
itsaertza eta Bonantzako
Kristoren basilika
ikus daitezke.

Pasaiako portuak (garai hartan Donostiako hiribilduaren jabegoa zen) harrera aparta prestatu zion Felipe IV.ari eta Maria Teresa infantari 1660ko maiatzaren 14an.

Bi pertsonaia hauek Donostiatik karrozan joan ziren, portuan gabarra handi batean itsasoratu eta badia atoan pasaz, inguruan zituzten ontzietan musika jotzen zuten bitartean. Bertan amarratutako 7 fragatak eta 2 galeoiek, barrokoan ohikoa zen bitxikeriaz apainduak, salbak boteaz hartu zituzten erregea eta Infanta. Flota txiki hartako kapitain ontzia bisitatu ondoren, berriz ere atoan zihoan gabarrara igo eta portuko bokalera hurbildu ziren itsaso zabala ikusteko.

Ekainaren 2an antzeko bidea egin zuten, erregeak eta alabak Donostia utzi eta Hondarribira abiatu zirenean, Errege Ezteiak ospatzera bidean.

OIARTZUN



Arpidene oinetxearen aldameneko fatxada (Done Eztebe plaza).

Oiartzungo herria izan zen 1659an hasitako negoziaketak berretsi zituen ezkontza-ospakizunaren azken antzeslekuetako bat. Hondarribiko hiriarentzat garrantzitsuenetakoa izan zen, bertan egin baitzioten Felipe IV.ari, Luis Méndez de Haro jaunaren bitartez, Elgoibarko elizaren errenten gaineko eskubideak beste 50 urtez luzatzeko eskaria. Dohaintza honetan 1635 eta 1659 urteetan zehar bi indarren artean izandako gerrako garaipen garrantzitsuenetako baten oihartzuna sumatzen dugu: hiriak 1638ko udan zehar egindako defentsa.

Erregeak Oiartzunen afaldu zuen, Martin de Amolaizen etxean eta ondoren Erreterria eta Hernanira jo zuen. Handik Tolosara joan zen, Atodotarren etxean gaua pasa eta hurrengo egunean Madrilera, gortera, itzulera bidaiari berrekiteko.

DONIBANE LOHITZUNE

1659an bezala, Donibane Lohitzuneko portu indartsua izan zuen bizileku frantziar jarraigoak: praktikan gorte osoa egon zen, Mazarino kardinala eta Austriako Ana erregina eta Luis XIV.aren itzalpeko nobleziak osatua.

Bertan bizi ziren armadore aberatsen etxe ikusgarriek eman zieten ostatu gorte hartako kideei. Versaillesgo jauregian zenbait urteren ondoren ikusiko zenaren aurrekari zen noble eta zerbitzari multzo hori.

Gaur egunean ere “Lohobiague” izenarekin ezagutzen den etxea erregearen bizileku bihurtu zen eta Austriako Anarena, aldiz, Haraneder jauregia, “Joanoenia” bezala ere ezagutzen dena (Marie de Haranederrena zen, Saubat de Lohobiagueren alargunarena). Infanta ere pasa zen azken etxe honetatik, aitzak uhartean eman ondoren, eta ordutik “Infantaren Etxea” (irudian ikus daitekeena) izenez ezaguna da. Anjouko dukea, erregearen anaia, Martin de Haranederren etxean izan zen eta Epernoneko dukeak Errota etxean hartu zuen ostatu.



Erregea 1660 maiatzak 8an sartu zen gertakizunak eskatzen zuen bezala apaindutako Donibane Lohitzuneko kale nagusitik. Ekainaren 9an herriko eliza nagusian burutu zen ezkontze-ospakizunaren berrespena. Oraindik ere ikus daiteke erregeak tenplutik irtetea erabilitako atearen aztarna, bertatik pasa ondoren betirako hormaz ixteko agindu zuena. Ziburu eta Donibane Lohitzune artean, Ugarana ibaia itsasoratzen den badian, espainiar itxurako galera batean jotzen ari ziren musikaz lagunduta heldu zen erregea.



ZIBURU



Ugarana ibaia itsasoratzen den badiaren beste aldean dagoen herrixka honek, nolabaiteko garrantzia izan zuen Maria Teresaren ematean, 1660ko udan. 1659. urtean bezala, Ziburu bitxikeria batengatik agertzen zaigu gertakizun hauetan. Mazarino kardinalak bertan hartu zuen ostatu, Martin de Etchetoren etxean. Dirudienez, 1659. urtean Luis Méndez de Haro jauna negoziaketa mahaia uzteaz mehatxatzen zuen bakoitzean benetako arrazoiek bultzatzen zuten: argudioa Donibane Lohitzunetikiko sentitzen zuen higuina zen.

Dena dela, Ziburu erregearen jarraigoa hartzeko apaindurekin ez zen alboko herri boteretsuaren atzetik ibili.

BIGARREN IBILBIDEA

Hondarribitik N-638 errepideak N-Iera eramango gaitu, Donostiara bidean.

Handik errepide berak eramango gaitu Tolosara.

Bertatik Hondarribira bueltatzeko N-I hartuko dugu berriz ere Irun-Frantziarako noranzkoan eta A-8 errepidean jarraituko dugu Irun-Baionarako noranzkoan, Donostia inguratuz. Autobide horretan jarraituko dugu 4-B irteerara arte, bertatik N-1-Erreterria-Irun aldera joko dugularik. Handik Lezorako bidean jarraituko dugu eta Erreterria-Lezo irteeran errotonda bat zeharkatuz GI-2638 errepidea hartuko dugu, Lezo-Pasai Donibanerantz. Bide honek, GI-3440 errepideak, azken herrigunera bideratuko gaitu.

Handik irteteko bide bera hartu eta, Lezo-Erreterriarako noranzkoan jarraituz, errotonda batera heldu eta N-Iari ekingo diogu, Irun-Baionarantz. Oiartzunerako irteera ("GI-2132") hartuko dugu eta lehen errotondan norabide berari jarraituko diogu bigarrenera arte. Han A-8-Irun-Baiona-Oiartzunerako bideari ekin eta azken herri horretara helduko gara GI-2134 errepidetik.

Alderantzizko bidea egingo dugu GI-2134an zehar Irun-Frantziarantz, Behobiara heldu arte. Muga Bidasoaren gaineko zubitik pasa ondoren, D-810 errepidetik zuzenean iritsiko gara. D-811a hartuz eta Hendaian D-912tik jarraituz Ziburura eta ondoren Donibane Lohitzunera joateko aukera ere badugu. Bestetik A-63 autopistak ere Donibane Lohitzunera eramango gaitu eta handik Ziburura joan ahal izango gara.